

ortzadar

larunbata, 2017ko martxoaren 11. 489. zenbakia

www.noticiasdenavarra.com

euskal kulturaren kolore guztiak

ARANTXA URRETABIZKAIA

“Alardearen inguruko
gatazka hasia da
bukatzen, baina luze
jo dezake oraindik
bukaerak”

— 4-5. orrialdeak —



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · **literatura** · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA

ARANTXA URRETABIZKAIA

IDAZLEA

“Fikzioak bakarrik ematen du aukera barru-barruraino sartzeko”

Hondarribiko alardea dela eta, azken 20 urteotan sortutako gatazkaren inguruko hausnarketaren emaitza da **Arantxa Urretabizkaiaren** ‘Bidean ikasia’ liburua. Kronika, fikzioa eta hausnarketa baliatu ditu kontakizuna harilkatzeko



KATTALIN BARBER

LEHEN eskuko lekukotza literatura bihurtu du Arantxa Urretabizkaiak (Donostia, 1947) *Bidean ikasia*. 1993-2016 liburuan (Pamiela). Hogei urte pasa dira, lehen aldiz 26 emakume Hondarribiko alardean desfilatzen ari ziren gizonen artean sartu zirenetik. Hasieratik bizi izan du idazleak gertutik alardearen inguruko eztabaida, eta, izenburuari men eginez, “bidea egin eta bidean ikasi” dutela argi du. Gatazkaren amaiera hasi dela ziur da.

Hogei urtez barrutik ezagutu duzu alardea. Orain bizipen horiek literatura bihurtu dituzu. Argi zenuen kontatu nahi zenuela?

Hasieratik argi izan nuen honi buruz idatzi nahi nuela. Gordeta nuen buruan, baina ez nekien nondik jo, nola, non eta noiz. Orain konturatu naiz esperientzia honen aztarnak badaudela aurreko lanetan hantzena. Batek idazten du bururatu zaiona eta bururatu zaion horrek zerikusia du bizi eta irakurri duenarekin. Orain dela bi urte eta erdi jarri nintzen horretara. Bide asko saiatu nituen, fikzioa hutsa, kronika hutsa...

Azkenean, ordea, kronika, fikzioa eta hausnarketa baliatu dituzu. Zergatik?

Fikzioa da alderik zabalena, kronika dago eta baita hausnarketa ere. Ezingo nuke esplikatu, baina senak agindu zidan hori zela behar nuen forma. Alde batetik, kronikak kon-

tatzen du pertsonak zer egin eta zer esaten duen. Baina literaturak, fikzioak, badu beste gaitasun bat, inongo arteak ez duena: egin eta esan bitartean zer pentsatzen edo zer sentitzen duzun esaten du. Aukera hori literaturak bakarrik du; fikzioa bakarrik sartu daiteke barru-barruraino. Azkenik, hausnarketa da niretzat liburu honen bihotza. Nik hasieratik banekien kontatuko nuela. Arazoa gero eta gehiago korapilatzen joan zen neurrian, berehala esan nion neure buruari: mina egin dago, orain ea zerbait ikasten dugun min honekin. Eta hortik dator izenburua.

Minetik ikasi duzu zuk?

Bai, minetik ikasi dut. Mina izan dezakezu eta ez ikasi; aldi berean, minik gabe ere bai. Mina eta poza, biak dira irakasle onak baldin eta ikasleak ikasi nahi badu. Nik, kasu honetan, batez ere minarekin ikasi dut, ez zorionarekin.

Minarekin batera beldurrak pisua du liburuan eta horri buruz hausnartzen duzu.

Beldurra min klase bat da. Nik ez nuen inolako hausnarketarik beldurri buruz. Uste dut askotan erre-

pikatzen ditugula norbaitek esandakoak edo ikasitakoak, gure kabuz pentsatutakoa ordezkatzeko. Orduan, nik sasoi horretan beldurri buruz pentsatzen nuen ez nuela beldurrik izan behar. Gero ikasi dut beldurra onartu behar dela, beharrezkoa dela, baina beldurra ez dela gauza bat ez egiteko nahikoa arrazoi. Nire erabakiak nik hartzen ditut, ez nire beldurrik.

“Gogorra da zuzenean gorrotoa bizi zena. Nik sumatu dut gorrotoa nirekiko. Niri horrek ematen dit beldurra, gorrotoak”

20 urte pasa dira 1996. urtean Alardean parte hartzen saiatu zinetenetik. Distantziarekin nola ikusten duzu orduan jazotakoa?

Argi dut liburua desberdina izango litzatekeela orain dela 10 urte idatzi izan banu edo hemendik hamar urtera idatziko banu. Orain izan da momentu egokia. Ni prest nengoen eta egoera urte hauetan guztietan baretu egin da. Gainera, Jaizkibel konpainiak egindako lanak bere emaitzak izan ditu. Era berean, ezingo nuke beste 20 urte esperoan egon hau idazteko. Hiru baldintza horiek elkartu zirenean sortu zen liburua.

Ekintza hark ondorio hauek izango zituela pentsatzen zenuten?

Ez, eta hori izan da gure akatsik larrienetako bat. Guk pentsatzen

genuen sartuko ginela, eta behin konpainia batean sartu orduko bide-ratuko zela. Ez zen hala izan. Taldeko norbaitek, eztanda hura gertatu eta gero izandako bilera batean esan zigun arazoak bost urte joko zituela. Eta izututa begiratu genion gainerakoek, ez genion sinetsi. Pentsa ezazu zer nolako ezjakintasunean ibiltzen ginen. Oraindik ere ordaintzen ari gara erabaki hura eta oraindik ere leporatzen digute jokarrera hura hartu izana.

Liburuko pasarte batean diozu: “Inor gutxik izango du kalean ahoz gora iraindua izateko ohitura”. Zuk hori bizi izan duzu.

Bai, iraina beste arma bat da. Nik ez nuen kalean ahoz gora iraindua izateko ohitura, eta orain badut. Irainei buruz ez nuen inolako hausnarketarik, ez zitzaidan inoiz gertatu eta ez nuen inguruan inor esperientzia hori bizi izan zuenik. Hortaz, nire barnean aurkitu behar izan ditut lanabes guztiak.

Esan daiteke liburua itxaropenarekin amaitzen duzula. Zure ustez, hasia ote da bukaera?

Nik uste dut baietz, hasia dela bukaera, baina luze jo dezakeela oraindik ere bukaerak. Iruditzen zait, nolabait eta noizbait norabidea aldatu egin zela. Halako batean, itsasoa, gora eta gora egin ondoren, behera egiten hasi zela. Orduan badago tar-te bat, itsasoak gora eta behera egiten duenean, ez dakizula ongi zertan ari den itsasoa bera, gero ikus



Jaizkibel konpainiaren hastaper

